

## BI EULI ETA ARMIARMA.

Bi eulik, alkargana  
 ziranak juntatu,  
 nairik alkarri beren  
 kontubak kontatu,  
 bat asi zan esaten,  
 —ni bein kazubelan  
 sartu nintzan, ta sartu  
 nintzanakin bat an,  
 tapa para zioten  
 kazubela ari,  
 eta atea ichi  
 zizkidaten neri;  
 nik ura ikusteaz  
 preso nintzala an,  
 esan nuben, naiz gaur ill  
 tripa bete zadan;  
 eta erasorikan  
 ango jankaiari,  
 nintzala gisaruba  
 jaten gustoz ari,  
 nuben denboran zerbait  
 kazubela ustu,  
 ainbesterañon nintzan  
 azi edo puztu,  
 kazubelaren tapa  
 alcharik bizkarrez,  
 kanpora irten nintzan  
 andik oso errez,

Besteak esan zion,  
 —ni bein marmitara,  
 erori nintzan buruz  
 bera, esnetara;  
 eta bera betea  
 zegolarik oso,  
 ain nion gogoz esne  
 ari nik eraso,  
 zurrutaka marmita  
 chukatutakoan,  
 nere buruba nuben  
 arkitu ondoan;  
 eta segiran andik  
 irtenik gañera,  
 joan nintzan egan beste  
 alderdi batera.  
 Ontan armiarma an  
 zelatan zegonak,  
 zulotikan entzunik  
 biyen jolas onak,  
 joan ta zarpazoz preso  
 egiñikan biyak,  
 galdetu zien, ziran  
 esanak egiyak.  
 —Jauna, eranzun zion  
 gisaru zaleak,  
 gu ezgera euliyak  
 ez, orren jaleak;

nere esan guziya  
 chancha baizik etzan,  
 eta barkatu bizait  
 gaizki bidet esan:  
 —nere goienak eztu  
 gezurrik barkatzen  
 esan zion, ta zaitut  
 jango gaur bazkaltzen;  
 eta, ¿zuk zér diozu?  
 gero besteari  
 galdetu zion, ¿nola  
 zan zure lan ori?  
 —nerea egia zan  
 esan zion, jauna  
 ni naiz marmita esne  
 osoa erana:  
 -bada orduban, zure

lagunaren gisan,  
 panparroi gezurtiya  
 zeralako izan,  
 zurekiñ egingo det  
 gaurko apariya,  
 eta biyari kendu  
 baitzien biziya.

. . . . .

Gure artean nola  
 kontuko euliyak,  
 ezer ez asko izan  
 oi gera aundiyak;  
 eta iñork bagaitu  
 estu samar artzen,  
 orduban gera euli  
 gu ere biurtzen.

RAMON ARTOLA.

